

Ama Kandida etorbideko errepidea itxita egongo da zati batean hainbat astez, Ziako erreka- saneamendua hobetzeko eta uholdeetatik babesteko lanak direla eta

Andoainen, 24-03-11.- Ezaguna denez, URA Agentzia Ziako erreka- saneamendua hobetzeko eta uholdeetatik babesteko proiektua ari da gauzatzen azken hilabeteetan. Prozesuak fase ezberdinak izango ditu, eta horrek zenbait eragozpen ekarriko ditu eguneroko martxan.

Hala, lanak Done Joan Bataiatzailea Adineko Pertsonen Egoitzaren aurrealderaino iritsiko dira datorren astean; zehazki, martxoaren 13tik aurrera, lanen ondorioz, Ama Kandida etorbideko zati bateko errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan, eta hala egongo da hainbat hilabetez.

Bitarte horretan, kontuan hartzekoak:

-Hiribus zerbitzua: bere ibilbidea egokituko du tarte horretan, Adinekoen Egoitzaren atzealdetik igaroz. Ez du aparteko eragozpenik izango zerbitzuan.

-Lurraldebus zerbitzua:

-Donostiarantz geltoki hauek bakarrik mantenduko dira: Goikoplaza, Ama Kandida (Thyssen-eko geltokia)

-Donostiarantz bertan behera geratuko dira: Ama Kandida (Kaletxiki), Martin Ugalde parkea, Gudari hiribidea 47, Gudari hiribidea 57

-Andoainerantz geltoki hauek bakarrik mantenduko dira: Ama kandida 11, Goikoplaza

-Andoainerantz bertan behera geratuko dira: Gudari hiribidea 57, Gudari hiribidea 47, Martin Ugalde kultur parkea, Ama Kandida 23 (Kaletxiki)

Herritarrei jakinarazten zaie errepidearen zati hori itxita dagoen bitartean, Gudarien etorbideko biribilgunea zabalik egongo dela; Ama Kandida etorbidea, berriz, Denac poligonoraino egongo da zabalik.

Egoerak sortzen dituen eragozpenez jakitun, egoera pazientziaz hartzea eskatu nahi du Udalak.